

2014ko URTARRILAREN 30eko 1/14 ZENBAKIKO OSOKO BILKURAREN HARTUTAKO AKORDIOAK

AKTA

1.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, 2013KO AZAROAREN 28KO 6/2013 OHIKO BILKURAKO AKTA ETA 2103KO ABENDUAREN 17KO 4/2013 EZOHIKO BILKURAKO AKTA.

Bilera honen deialdia baino lehen, zinegotzi guztiei igorri zaie akten zirriborroa. Horiek berrestea da xedea eta irakurritzat jo dira.

Bertaratutakoei galdetu zaie ea oharren bat egin nahi duten, eta Juan Carlos Hurtado jaunak ohartarazi du akats bat dagoela eguneko aztergaien zerrendako laugarren puntuaren bozketan. Zehazki, bi aldiz agertzen dira AEIko botoak eta ez da EAJ-PNVko botorik ageri. Baina, berez, 2 boto EAJ-PNVrenak dira eta 3 boto AEIrenak.

Ohartarazitako zuzenketa eginda, berretsi egin dira aurreko bilkurak: azaroaren 28ko 6/13 zenbakiko ohiko bilera eta 2013ko abenduaren 17ko 4/2013 zenbakiko ezohiko bilera.

EBAZPENAK.

2.- ONESTEA, BIDEZKOA DA, LANPOSTUEN ZERRENDA ALDATZEA, HORIEN BALORAZIOA EGIN OSTEAN.

[...]

Eztabaida amaitu da eta proposamena bozkatu da.

Aldeko botoak: 9; 6 Bildurenak, 2 EAJrenak eta 1 AEIko Felisa Peral Alonso andrearena.

Aurkako botoak: bat ere ez.

Abstentzioak: 2 AEIko Nuñez eta Mena jaunena.

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz onetsi da lanpostuen zerrenda aldatzea, bi lanpostu baloratu ondoren, bat administrari lanpostuarena eta bestea administrari laguntzailearena.

3.- HASIERAN ONESTEA, BIDEZKOA BADA, ZERBITZU PUBLIKOAK EMATEAGATIKO TASAK ARAUPETZEN DITUEN 7 ZENBAKIKO ORDENANTZA FISKALAREN ALDAKETA; ZEHAZKI, BERE 5. EPIGRAFEA.

[...]

Proposamena bozkatu egin da:

Aldeko botoak: 6 Bildurenak.

Aurkako botoak: 2 EAJrenak.

Abstentzioak: 3 AEIrenak.

Korporazioko kideen legezko kopuruaren gehiengo osoz erabaki da hasieran onestea zerbitzu publikoak emateagatiko edo administrazio izaerako udal jarduerak egiteagatiko tasak arautzen dituen 7 zenbakiko ordenantza fiskalaren aldaketa, egindako proposamenarekin bat etorritz.

[...]

4.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, SOPUERTAKO UDALEKO EUSKARAREN ERABILERA PLANA, BOSGARREN EPEALDIRAKO (2013-2017).

[...]

Berlaratuek aho batez erabaki dute onestea Sopuertako Udaleko Euskararen Erabilera Plana, 5. epealdirako (2013-2017).

5.- ONESTEA, BIDEZKOA BADA, BILBAO BIZKAIA UR PARTZUERGOARI LAGATZEA JARRALTAKO UR BILTEGIA HANDITZEKO AZPIEGITURA. BARRIETASEKO ITURBURU SAREA BERRITZEA. I. FASEA.

[...]

Berlaratuek aho batez erabaki dute Bilbao Bizkaia Ur Partzuergoari lagatzea uraren zerbitzura bideratutako azpiegituren (2013. urtean egin zen) erabilera eta mantenimendua, aipatu Partzuergo horrekin sinatutako Hitzarmenari jarraikiz. Zehazki, Jarraltako ur biltegia handitzean eta Barrietaseko iturburuen sarea berritzean datza (I. Fasea).

6.- BERRESTEA, BIDEZKOA BADA, 895/13 DEKRETUA, OSTALARITZA ENPRESETAKO JARDUERAK IXTEKO ORDUTEGIARI BURUZKOA.

[...]

Bertaratuek aho batez erabaki dute berrestea abenduaren 17ko 895/13 zenbakiko Alkatetza Dekretua. Horren bidez, honako hau onetsi da:

“LEHENENGOA.- Onestea ixteko ohiko ordutegia 2 orduz luzatzea, ekitaldi eta egun horietan aplikatzekoak diren eta indarrean dauden ordutegiei buruzko dekretuek emandako eskumenei jarraikiz.

[...]

7.- 224/13 ADMINISTRAZIOAREKIKO AUZI ERREKURTSOKO EPAIKETARAKO DEFENTSA ESKAERARI BURUZKO 7729/13 FORU AGINDUAREN BERRI EMATEA.

[...]

Udalbatza Osoari horren berri eman zaio, eta jakinaren gainean daude.

8.- 2013ko URTARRILAREN 1ean ZEUDEN HERRITARREN KOPURUAREN BERRI EMATEA.

Urtarrilaren 22ko 1/14 zenbakiko Osoko Bilkurako Gaien Informazio Batzordean, horren berri eman ondoren, 2013ko urtarrilaren 1ean zeuden biztanleen kopuru ofizialaren (zehazki, 2575 biztanle) jakitun dira.

Udalbatza Osoari horren berri eman zaio, eta jakinaren gainean daude.

KONTROLA.

9.- AZKEN OSOKO BILKURATIK EMANDAKO EBAZPENEN BERRI EMATEA.

10.- MOZIOAK.

10.1.- EDURNE SANTAMARINA ANDREAK BILDUREN ORDEZKARI GISA AURKEZTUTAKO MOZIOA. HORREN BIDEZ, PROPOSAMENA EGIN DU TOKIKO ADMINISTRAZIOA ARRAZIONALIZATZEKO ETA IRAUNARAZTEKO ETA BERONEK TOKI ERAKUNDEETAN DUTEN ERAGINAREN INGURUKO LEGEA DELA ETA.

(Mozioa, funtsean, estatuko gobernuari abenduaren 27ko 27/2013 Legea aldatzeko eginiko eskaerari buruzkoa da).

[...]

Bertaratuek aho batez onetsi dute aurreko mozioa onestea.

Eguneko aztergaien zerrendako gaiak aztertu ondoren eta eskaera eta galderekin hasi aurretik, batzordeburuak galdetu du ea talde politikoren batek, premiazko arrazoiak direla eta, bilkuran aurkeztu nahi duen deialdiarekin batera doan eguneko aztergaien zerrendan ez dagoen eta eskarien eta galderen atalean sartu ezin den gairen bat.

EAJ-PNV udal taldeko bozeramaile Juan Carlos Hurtado jaunak eskatu du zuzenean Udalbatza Osorako aztergai uztea bi mozio. Mozio horiek ahoz egin dira, eta haurdunaldia eteteari buruzko legea aldatzeari eta urtarrilaren 8ko polizia operazioari buruzkoak dira.

Udalbatza Osoak bozkatu egin du horiek bilkuran sartzea bidezkoa den, eta bertaratuek aho batez erabaki dute EAJ-PNV udal taldeak aurkeztutako bi mozio horiek eztabaidatzea eta bozkatzea, premiazko arrazoiak tarteko.

10.2.- EAJ-PNV UDAL TALDEAREN MOZIOA, HAURDUNALDIA BORONDATEZ ETETEARI BURUZKO LEGEA ALDATZEAREN INGURUKOA.

[...]

Bertaratutakoek aho batez erabaki dute mozioa onestea. Zehazki, Sopuertako Udalak estatuko gobernuari eskatuko dio sexu- eta ugalketa- osasunari eta haurdunaldia borondatez eteteari buruzko martxoaren 3ko 2/2010 Legea berrikustea xede duen Lege Organikoaren Aurreproiektua bazter dezala.

10.3.- EAJ-PNV UDAL TALDEAREN MOZIOA, SOPUERTAKO EAJ UDAL BATZORDEAREN ADIERAZPENARI BURUZKOA.

[...]

Bertaratuek aho batez onetsi dute mozio-adierazpena onestea. Horren bidez, Sopuertako EAJ Udal Batzordeak Sopuertako herritarrei zein oro har euskal gizarteari eskatzen die herritar ororen eskubide guztien alde lan egiten eta aldarrikatzen jarrai dezatela, are gehiago testuinguru politiko honetan, guztiok lan egin behar baitugu bakea eraikitzen eta bermatzen.

Batzordeburuak, gobernu taldeko bozeramaile gisa, Ismael Fidalgo Blanco Sopuertako herritar jaunari esker ona ematearen inguruko gaia eguneko aztergaien zerrendan sartu nahi du.

Bertaratuek aho batez onetsi dute eguneko aztergaien zerrendan sartzea.

10.4. ISMAEL FIDALGO BLANCO JAUNARI ESKER ONA.

Alkateak eskatu du esker ona ematea, eta, horren froga gisa, eraikuntza berriko San Pedro etxe taldea berari eskaintzea. Horretarako, bere izenean jarriko da, "Ismael Fidalgo Blanco urbanizazioa".

Bertaratuek aho batez onetsi dute proposamena.

11.- ESKAERAK ETA GALDERAK.